

Pilota ♦ «Guretzat ez da ustekabea izan, oso serio ari gara», esan du Luis Mari Bengoak

Besagain, isil-isilik...

Bigarren mailako txapelketa goitik behera menperatu du

Enekoitz Telleria / Donostia

OSTIRALEAN jokatu da, Oionen (Araba), Eskuz Bina-kako Bigarren Mailako txapelketako finala: Esnal eta Mendia Telleria eta Oregiren kontra. Lau pilotariak Besagaineoak. Asegarce-Altia eta Asperen aldean enpresa txikia, izenez. «Baina izena eta kalitatea kantxan erakutsi behar dira, ez bulegoetan». Besagaineo bazkideetako batek, Luis Mari Bengoak, atzo bertan esandakoa da.

Luis Mari Bengoa, Enrike Bidarte eta Clemente Arroyo dira Besagain enpresako hiru bazkide nagusiak. Bere garaian Asegarce-Altin edo Aspen aritutako zenbait pilotarirekin eta azkena etorritako gazteekin enpresa «serio» bat osatu dute. «Telleria, Bazeta, Lejardi eta Zabala beterranoak, Esnal gaztea ez dira edonor, asko erakutsi duen jendea da», nabarmendu zuen atzo Luis Mari Bengoak.

Euskal Herriko lau t'erdiko txapelketan agertu ziren indarrez —Zabala, Ansotegi eta Fuertesek bikain jardun zuten—, eta bigarren mailako txapelketan euren nagusitasuna nabarmena izan da, nahiz eta kitarako partiduetan erabaki ziren finalistak. Besagaineo buruen eta bigarren mailako txapelketa jarraitu dutenen irudipena




AMAIA ZABALO

Besagaineo Telleria eta Oregi, Bigarren Mailakoa aurkeztu zen egunean.

da, gainera, txapelketa hori serio hartu duen enpresa bakarra izan dela Besagain. Luis Mari Bengoak garbi dauka bigarren maila horri «duintasuna» ematea dela bere enpresaren zereginetako bat: «Aspalditik ari gara esaten pilotarien artean igoe-rak eta jaitsierak behar direla, txapelketa bakoitzari bere nortasuna eman eta pilotari bakoitzari bere kalitatea errekonozitu».

Federazioari lema hartzeko eskatuz

Bigarren mailak orain duen egoeraz galdetuta, Luis Mari Bengoa ez da oso baikor agertu. «Aurten, txapelketa hasi bezain pronto Federazioak alde egin zuen. Uneotan, kapitainik gabeko barkua bezalako gabilta. Oraindik ez dakigu ez finaleko txapelak ez kopak nork eman behar dituen», nabarmendu zuen

**LUIS MARI BENGOA**
(Besagaineo burua)

«Bigarren maila orain kapitainik gabeko itsasontzia bezala dabil. Oraindik ez dakigu ez finaleko txapelak ez kopak nork eman behar dituen»

atzo, haserre antzean, Besagaineoak. Federazioari «lema hartzeko» eskatzen dio Bengoak: «Gure pilotari guztiak han daukate fitxa. Berriena da ardura».

Ideiak garbi eta lan esparrua ongi mugatuta dauka Besagaineo: «Uneotan, poztasun handiena, gure mutilen bat goiko enpresa batera joateak emango liguke. Badaukagu horretarako moduko jendea».

Daniel eta Juan Pabloren lehenengo garaipena

E. T. / Donostia

EUSKAL HERRIKO pala txapelketako bi partidu ziren atzo Bilboko Deportivon jokatzekoak, baina bakar-baino ez zen jokatu azkenean. Danielek eta Juan Pablock irabazi zuten Ziskar II.a-Garridoren kontra (45-38). Bigarrenen, Mikel Undak aritu behar zuen, baina beste egun pare bat eskatu ditu erabat osatzeko, eta bihar arte atzeratu dute, horrenbestez, atzo jokatu beharreko txapelketako partidua: Unda I.a-Rekalde eta Iriondo-Torre.

Danielek eta Juan Pablock txapelketako orain arteko partidu gehienetan eman ez duten maila eman zuten atzo. Ongi moldatu ziren Garciatarrak eta aparteko arazorik gabe ateratu zuten aurrera Ziskar eta Garridoren kontrakoak. Berandutxo datorkie lehenengo puntua. Lau partidu jokatu eta atzokoak bakarrik irabazi dute. Ziskar II.ak eta Garridok, berriz, jokatuak biak galdu egin dituzte.

Jaialdiko lehena, Egibar-Ziskarrentzat Zeberio eta Leundaren kontra (25-40).

Gure Kirolak eta Zaramaga Euskal Ligako buru, eskuz

Erredakzioa / Donostia

JOAN den asteburuan jokatu da Kluben Arteko Euskal Herriko txapelketako hiru-garren jardunaldia. Ez da aparteko ustekaberik izan, eta datorren jardunalditik aurrera mailaz igo edo jaisteko partiduak hasiko dira.

Eskuz binakakoan bi klub dira nabarmendu beharrekoak. Barakaldoko Gure Kirolak, El Cortijoren kontra lortutako garaipenari esker, sailkapen buruan jarri da Zaramagarekin batera, eta bi talde horiek, beraz, zuzenean sailkatu

bigarren ligaxka jokatzeko, mailaz igo edo jaisteko partidurik jokatzeko beharrik gabe.

Zestán, Gasteizko Jai Alai klubeko bi taldeak aritu ziren elkarren kontra, multzoko lehen postu erabakitzeko—Zaratek eta Otxoak irabazi zuten (35-31)—, eta pala motzean Giriziak eta Kukuk egin zuten beste horrenbeste —Giriziako Ezkerro eta Ayerbek irabazi zuten (40-34)—.

Paleta larraz, Lagun Artea eta Girizia jarri dira sailkapenaren buruan.

txokoan

Ezkurra eta Urretabizkaia II.a irabazle Euskalen

Ezkurra bolada ezin hobean dabil, eta atzo ere irabazle irten zen Huarteko Euskalen jokaturako estelarrean. Urretabizkaia II.aren laguntza bikainarekin, 40-35 irabazi zuen Garikoitz Altuna eta Liza-soren kontra. Doneztebe-ko txapelduna izan zen onena. Bigarren estelarra, Eizagirre eta Elizalderentzat, Zeberio II.a eta A. Lekunberriren kontra (27-40). Jon Eizagirreraren hobe-kuntza, nabarmena.

Finalerdietako pilota aukeraketa Bergaran (16:00)

Bergarako udal pilotalekuan bilduko dira gaur (16:00) Alustiza-Zearra eta Titin III.a-Lasa III.a, datorren larunbatean jokatu dute finalerdietako partidurako pilotak aukeratzeko. Unanue-Errasti eta Goñi II.a-Zezeaga finalerdietako pilota aukeraketa, berriz, bihar egingo da, Eibarko Astelenan (11:30).

Mikel Goñik proba egingo du gaur Astelenan (16:30)

Igandean Unanue eta Errastiren kontra —azkoi-tiarra jokatzeko moduan izango da ordurako— jokatu beharreko finalerdietako itzuliko partidurako prest dagoen jakiteko, proba egingo du Mikel Goñik gaur arratsaldean Eibarko Astelenan (16:30). Fisikoki hobera egin du Oronozkoak, eta eskuak zelan dituen ikusi nahi du gaur.

Unai Iñurrategi fitxatu du Garfek

Unai Iñurrategi Urizarri atzelaria da Errioxako Garfe enpresak fitxatu duen azken pilotaria. 26 urte ditu Iñurrategik, Eskoriatzakoa da (Gipuzkoa), 1,84 metro eta 97 kiloko mutila. Euskadi eta Gipuzkoako txapeldun iaz, Munduko Kopako txapeldun ere bai Almerian, eta Munduko Txapelduna orain bi urte Mexikon.

biharko partiduak

GALARRETA. 16:00.

- Zalakain-Etxebe II.a / Zeberio III.a-Zestau III.a
- Ezkurra-Etxabe / Elizalde-Altuna I.a-Aizpuru
- Zeberio II.a-Iriarte / Urretabizkaia I.a-Lizaso
- Zeberio I.a-Mendizabal / Lezea-Etxeberria III.a